

GAI ZERREDA (2026/03/10)

1. Aurreko bilkuretako aktak onartzea, hala badagokio (01/20an eta 02/10ean egindako bilkurak).
2. Hautaketa-prozesuen deialdia negoziatzea.
3. Lan-poltsa berriak hautaketa-prozesuen ondoren.
4. Prebentzioko ordezkariak.
5. Ibaiondo.
6. Beste gai batzuk: konpentsazio ekonomikoak.

AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA

Aurreko bilkuretako aktak onartzeari dagokionez, Administrazioak jakinarazi du, bileraren aurretik, sindikatuei urtarrilaren 20ko eta otsailaren 10eko bilkurei zegozkien aktak bidali zitzaizkiela, eta biak bilkura honetan onartu zirela.

HAUTAKETA-PROZESUEN DEIALDIA NEGOZIATZEA

Hautaketa-prozesuen deialdiaren negoziazioari dagokionez, Administrazioak jasotako alegazio guztiei erantzun die. Alegazio horiek xehetasunez aztertu eta komentatu dira Mahai Sektorialean, bi alderdien arteko negoziazorako gunea.

Administrazioak, jasotako alegazioak zehatz-mehatz aztertu ondoren, guztiei erantzun die, eta sindikatuek egindako ekarpenak eta planteatutako gai gehigarriak baietsi dira.

Besteak beste:

- Praktikaldia kentzea.
- Adimen-desgaitasuneko txandaren etorkizuneko deialdirako LPZ aztertzen hastea.
- Gradu eta masterrei emandako puntuazioa aldatzea.
- Hurrengo deialdietan oposizio-prozesuko kalifikazioak gordetzeko aukera.

Azkenik, txanda-kontratuaren diseinu berriaren eta erretiro partzialak planifikatzeko beharraren berri eman da; izan ere, lege-aldaketaren ondoren, baimena hautaketa-prozesuei lotuta egongo da. Laster, Administrazioa harremanetan jarriko da erretiro partziala hartzeko baldintzak betetzen dituzten lan-kontratudun langile finkoekin, informazio hori helarazteko.

Hurrengo mahaian sindikatuek planteatzen dituzten gaiak aztertzen eta erantzuten jarraituko da, hautaketa-prozesu horien oinarrien definizioa adostea ahalbidetuko duen negoziazio baterantz aurrera egiteko.

LAN-POLTSA BERRIAK HAUTAKETA- PROZESUEN ONDOREN

Era berean, Administrazioak jakinarazi du, **hautaketa-prozesuen ondorengo lan-poltsa berriei** dagokienez, ordezkaritza sindikalek alde aurretik helarazitako irizpideei buruz egindako ekarpenak aztertuko direla. Administrazioak hainbat gai planteatu ditu lan-poltsa berriak sortzeko, eta adierazi du helburua dela ziurtatzea lan-poltsetan daudenek benetako interesa dutela administrazio honetan lan egiteko.

PREBENTZIOKO ORDEZKARIAK

Prebentzioko ordezkariei buruzko puntuari dagokionez, Administrazioak proposamen berri bat bidali die sindikatuetaordezkari, azken negoziatio-mahaian egindako ekarpenen ondoren egin. Proposamen horretan onartzen da, datuak eta esparru juridikoa aztertu ondoren, prebentzio-ordezkarien kopurua handitu daitekeela, eremu bakoitzean prebentzio-jarduera egokia bermatzeko. Administrazioak proposatutako testuari buruzko oharak helarazteko eskatu die sindikatu. Dokumentu hori Zentro arteko Segurtasun eta Osasun Batzordean aztertuko da, gai horretan akordio baterantz aurrera egiteko.

IBAIONDO

Ibaiondoko Adingabeen Zentroari buruzko atalean, eta sindikatuen ordezkaritzak egindako azalpenaren ondoren, jakinarazi da Administrazioa, Enpresa Batzordearekin batera, lan-poltsak kudeatzeko akordio espezifiko bat idazten ari dela. Ibaiondo adingabeen zentroko LPZ funtzionario bihurtzeko prozesuari dagokionez, jakinarazi da laster hasiko dela prozesu hori, eta, ondoren, zentro horretan hutsik dauden lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egingo dela. Era berean, adierazi da ordutegi bereziei buruzko akordioa aldatzeko proposamena, Batzordeari helarazi zitzaiona, haren erregulazioa ikastetxearen errealitatera egokitzeko egin dela, eta testu hori negoziatzeke dagoela gaur egun. Aldi berean, Justizia eta Giza Eskubideen Saila hainbat antolaketa-jarduera egiten ari da zentroan.

BESTE GAI BATZUK

Beste gai batzuk atalean, eta **konpentsazio ekonomikoei** dagokienez, aurreko bilkuran adierazi zen bezala, Administrazioak lanean jarraitzen du martxoan dagokion ordainketa egin ahal izateko. Konpentsazio hori zenbait irizpide betetzen dituzten bitarteko funtzionarioei edo aldi baterako lan-kontratadun langileei zuzenduta dago. Irizpide horiek Jakinan argitaratuko den jarraibidean zehaztuko dira. Administrazioak banakako ebazpena emango du ordainketa hori jasotzeko eskubidea duen pertsona bakoitzarentzat.